



Basaburuko Udala
CIF P 3104900 J
31866-Jauntsarats (Nafarroa)

2023KO APIRILAREN 25EAN BASABURUKO UDALAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Jauntsaratsen (Basaburuan), 2023ko Apirilaren 25ean, arratsaldeko 19:00etan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia eginda, Esther Lakasta Perez Ilzarbe alkatearen lehendakaritzapean, eta Lucia Beloqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

BERTARATUAK: Xabier Azpiroz, Santos Etxegia, M^a Mar Ansorena eta Julen Beunza.

BERTARATU EZ DIRENAK: Olatz Dorai eta Ricardo Arangoa.

19:00etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dauden gaiak lantzeari ekin zaio.

GAI ZERRENDA

1.- Aurreko aktaren onespena.

Martxoaren 30eko ohiko batzarreko akta emailez helarazi zaie zinegotziei eta aho batez onartzen dute bildutakoek.

2.- Alkate ebazpenak

-2023/28 alkate ebazpena: Onartzea 2023 urteko Zirkulazio zergaren dagokion zatiaren itzultzea NA7963AY matrikuladun autoa behin betiko baja emateagatik, itzuli beharreko kopurua 117,06 eurokoa izanen delarik.

-2023/29 alkate ebazpena: Ez onartu Montserrat Diez Abaurreak egindako epaitz eskaera, ez duelako betetzen ordenantzaren 1D artikuloa “udal honekiko betebeharrak fiskaletan egunean egotea”.

- 2023/30 alkate ebazpena: Ez onartu Aranzazu Prieto Lopezek egindako epaitz eskaera, ez duelako betetzen ordenantzaren 1D artikuloa “udal honekiko betebeharrak fiskaletan egunean egotea”.

-2023/31 alkate ebazpena: Onartzea 2023 urteko Zirkulazio zergaren dagokion zatiaren itzultzea A1847CN matrikuladun autoa behin betiko baja emateagatik, itzuli beharreko kopurua 47,04 eurokoa izanen delarik.

-2023/32 alkate ebazpena: Baimena ematea Roberto Martín Fernandezi, Jaunsaratsen dagoen udal polikiroldegia erabiltzeko, martxoaren 26an arratsaldeko 16:00etatik 20:00etara

-2023/33 alkate ebazpena: Obra baimena ematea: Telefonica de España SAU-ri Orokietako San Tiburcio 2 kalearen inguruan 2 zutoi eta 6 riostra aldatzeko eta gainera 2 riostra berri jartzeko.

-2023/34 alkate ebazpena: .- Ez onartzea obra baimena ematea Trinidad Prieto Morenori, Aizarozko 10. Poligonoko 5. Lursailean dagoen biltegirako argi indarra eramateko, lursaila UEC-3 barruan dagoelako eta erabilera hau ez dago udal planaren araudian baimendua

-2023/35 alkate ebazpena: Onartzea 2023 urteko Zirkulazio zergaren dagokion zatiaren itzultzea 3290BHK matrikuladun autoa behin betiko baja emateagatik, itzuli beharreko kopurua 100,33 eurokoa izanen delarik.

-2023/36 alkate ebazpena: Onartzea 2023 urteko Zirkulazio zergaren dagokion zatiaren itzultzea 4208BPG matrikuladun autoa behin betiko baja emateagatik, itzuli beharreko kopurua 100,33 eurokoa izanen delarik

-2023/37 alkate ebazpena: Baimena ematea Ultzama aldeko gizarte zerbitzuen mankomunitateari Aizarozko Kultur etxeko areto nagusia erabiltzeko apirilaren 28an eta Maiatzaren 5ean 18:00etatik 20:00etara maskulinitateak lantzeko tailer bat egiteko

-2023/38 alkate ebazpena Onartzea 2023. Urtean Basaburuko udalak prestatutako euskara sustatzako iharduerakn burutzeko programa eta diru laguntza eskatzea 2023/11E Foru Dekretu bidez onartutakoa,

Bildutakoek ontzat ematen dituzte onartutako alkate ebazpenak.

3.- 2023/42 alkate ebazpena berrestea.

Alkateak azaltzen du, alkate ebazpen bidez onartu zela Telefonika enpresak jarritako helegitea eta hau onartzeko Biderka abokatuek egindako txosten juridikoa, helegitea tramitatzeko epeak medio ezin zelako batzarrerako utzi.

Helegitearen oinarri zen beraiek ez zituztela hirigintza tasak ordaintzen hala arautzen zutelako 1987/11 legearen 2 eta 3 artikuluek. Eta hortaz ez du tasa ordaindu beharrik lurzoruaren 1.5 tasa ordaintzen diotelako udalei hiru hilabetero. Bai aldiz obren EIOZ , hortaz obra baimena onartzen zaion alkate ebazpena zuzendu beharko litzateke eta tasaren ordainketa kendu eta aldiz EIOZren likidazioarekin osatu.

Hots bildutakoek aho batez berresten dute 2023/42 alkate ebazpena.

4.- Langabetuen kontratazioa.

Idazkariak azaltzen du gai hau ezin dela aztertu oraindik ere Nafarroako Enplegu Zerbitzuak bidaltzea behin betiko zerrenda. Oraindik ez ziren eskaera aurkeztu ziren guztiak ateratzen zerrendan eta horregatik eskatu zen martxoaren hasieran eskatutako zerrenda eguneratzea. Horregatik beste epe bat eman behar zaie zerrenda bidaltzen dutenetik eskaera aurkeztea aurkeztu ez direnak. Epe hori 2 egunekoa izango da.

5.- 2023ko lan egutegia

alkateak irakurtzen du 2023ko la egutegia, ohiko festa egunez gain langileen proposamena da abuztuak 14 tokiko jai eguna jartzea eta ere abenduaren 7a ere.4Bi egun horietan udala itxita egongo litzateke.

Biildutakoek ontzat ematen dute proposamena eta hortaz ondoren zehazten den lan egutegia onartzen dute 2023. Urterako:

Ikusirik 323/2022 Ebazpena, Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiekzioaren eta Lanaren zuzendari nagusiak ekainaren 3an emana, ezartzen duena ordaindu bai baina erreperatu behar ez diren 2023. urterako jaiegunen egutegi ofiziala, Nafarroako Foru Komunitatearen eremuan, eta orobat ikusirik espedientean dagoen dokumentazioa. Kontuan hartuz Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.h) artikuluan eta Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren 84.1 artikuluan ezarritakoa,

Basaburuko udaleko 2023. urtean izanen diren jaiegunen egutegia:

- Urtarrilaren 6a: Urteberri eguna.
- Apirilaren 6a: Ostegun Santua.
- Apirilaren 7a: Ostiral Santua.
- Apirilaren 10a: Pazko astelehena.
- Maiatzaren 1a: Langileen eguna.
- Uztailaren 25a: Santiago eguna
- abuztuaren 14a: Tokiko festa.
- Abuztuaren 15a: Ama Brjinairen Jasokundea.
- Urriaren 12a: Espainiako Jai Nazionala.
- Azaroaren 1a: Santu Guztien Eguna.
- Abenduaren 4a: San Frantzisko Xabierkoa - Nafarroaren Egunaren ondoko astelehena.
- Abenduaren 6a: Konstituzioaren eguna.
- abenduaren 7an Tokiko festa.
- Abenduaren 8a: Ama Birjina Sortzez Garbia.
- Abenduaren 25a: Eguberri eguna.

Orobat, baliogabeak izanen dira, 2023. urtean epeak kontatzeari dagokionez, larunbat eta igande guztiak, eta udal bulegoetako jaiegunak.

Basaburuko Udaleko administrazioaren lanaldiaren urteko egiazko lanordu kopurua 1.592 izanen da, eta honela banatuko da:

1. Astelehenetik ostiralera bitarteko eguneroko lanaldia, orokorrean, 7 ordu eta 20 minutukoa izanen da, astelehenetik ostiralera.
2. Artikulu honetako aurreko ataletan ezarritako lanaldiaren banaketa ez zaie aplikatuko, zerbitzuaren beharrak direla eta, lanaldi berezia duten enplegatuei, ezta ordu konpentsazioren bat dutenei ere (txandakako lana, gauekoa, etab.), horiek lan egutegi berezia izanen baitute.
Basaburuko Udaleko erregistro orokorra 9:30etatik 13:30etara egonen da irekita, jendea hartzeko, astelehenetik ostiralera.

Organo administratibo eskudunek erregelamenduz ezarritako oporrak emango dituzte, gisa honetan: oporraldi luze bat edo bi eta egun solteak, urtean zehar hartzeko, zerbitzuko beharrek hala uzten dutenean.

Aurreko ataletan aipatutako lanaldiaren banaketa eta oporrak ez zaie aplikatuko, zerbitzuko beharrak direla-eta lanaldi berezi sarteren bat dutenei, ezta haur eskolara atxikitako langileei ere, horiek beren lan egutegia izanen baitute; hala ere, orokorrean ezarrita dagoen urteko lanordu kopurua errespetatu beharko dute.

Nolanahi den, urteko lanaldiaren iraupena baldintzatuko du 2022rako orokorrean Nafarroako Administrazio Publikoetarako behin betiko ezartzen denak. Horretarako, aldaketaren bat izanez gero, behar diren egokitzapenak egingo dira.

Erabaki hau Nafarroako aldizkari ofizialean argitaratua izan dadin agintzen dute bildutakoek.

6.-Mozioa.

Aurreko batzarrean eskatu bezala Naizen elkarteak euskaraz bidali du ondoren irakurtzen den mozioa Kattalingune bulegoaren zerbitzu murrizketen inguruan:

NAFARROAKO UDALEI AURKEZTEN DIETEN MOZIOA, ONAR DEZATEN Kukulua LGTBIQ+ - Zikutak - Bullerak - Lugatibe - Asociación Fénix - Dekumas - Iloa Ledo - Transkolore - Naizen - Laiak - Despertrans - Ortzadar - Marikaroa eta EHGAM kolektiboek, Kattalingune zerbitzu publikoaren murrizketaren aurrean, honako mozio hau aurkeztu dute eztabaidatzeko eta, hala badagokio, onartzeko:

ARRAZOIEN AZALPENA:

LGBTIQ+ kolektiboek urte asko daramatzate LGBTIQ+ pertsonen eskubideen alde lanean. Horietako asko Kattalingorri Elkartearen sorreran bildu ziren 2000. urtean, beren ahaleginak, maila sozialean nahiz instituzionalean eragiteko gaitasuna bateratzeko. Erakundeek, politikariek eta kolektiboek batera egindako lan horren ondorioz, 2016tik Kattalingune -Nafarroako Gobernuko LGBTI+ Zerbitzua- dago Nafarroako biztanle guztiei arreta emateko, 2017tik LGBTI+ Pertsonen Berdintasunerako 8-2017 Foru Legea martxan dago, 2018an Osasunbideak Transbide (Transexualei, Transgeneroei eta Intersexualei Arreta Espezializatua Emateko Unitatea) sortu zuen eta 2019tik, berriz, INAIren (Nafarroako Berdintasunerako Institutua) barruan gobernu-organo gisa zuzendariordeza espezifiko bat sortu zen. Horiek guztiak lorpen eta aurrerapen handiak dira, baina LGBTI+ Zerbitzuaren kasuan 7 urtetik eta LGBTI+ Zuzendariordeztaren kasuan 4 urtetik, ozta- ozta igarotzen direnak, pandemia tarteko.

Urtez urte handitu egin dira LGTBQI+ politiken partidak, eta urtez urte ere, zerbitzuaren aurrekontua mesponentzialki hazten joan da, profesionalak handituz eta, beraz, arreta-gaitasuna handituz, arreta deszentralizatua eskaintzeko arreta-gune berriak bultzatuz. 2016an, Iruñean bakarrik artatzen, Tuteran ere artatzera igaro zen (2017), Ipar-mendebaldeko eremuan bulegoarekin Irurtzunen (2020), Erdialdean bulegoarekin Tafallan (2022) eta Lizarran, Lizarraldean (2022), eta 7 profesional izan ziren 2022ra arte garatzeko.

Hau da, LGBTIQ+ pertsonen hurbiltasunetik arreta eman ahal izatea eta tokiko eragileekin sarean lan egin ahal izatea (Berdintasuna, Gazteria, Kultura, Guraso Elkarteak, Auzo Taldeak, Ikastetxeak) errealitate hori eta dagoen LGBTI+fobia ikusarazteko ahalbidetu du horrek.

Hori guztia horrela izan da, duela 3 hilabete arte (azaroan) non INAIk, kolektiboen eta Zerbitzuko profesionalen iritzia kontuan hartu gabe, enkargu berarekin (5 bulego) arreta-taldea murriztea, 7 profesional izatetik 4 profesional izatera pasatuz alegia, erabaki zuen arte. Nahiz eta Legebiltzarrak onartutako 248.000 euroko aurrekontu-partidarekin, Zerbitzua bere horretan mantentzea ahalbidetuko zen. 2022 2023

- Teknikari bat asteleheneretik ostegunera Tuteran (Tutera eta Erribera).
 - Teknikari bat Irurtzunen bulegoa (ipar-mendebaldeko zonaldea) astean behin eta Iruñea.
 - Teknikari bat Tafallako Bulegoan (Erdialderako) astean behin eta Iruñerria.
 - Teknikari bat Lizarrako Bulegoko (Lizarralderako) teknikari 1 astean behin eta Nafarroako gainerako lekuetan, non ez dagoen bulego deszentralizaturik.
 - Teknikari bat asteleheneretik ostegunera Tuteran (Tutera eta Erribera).
 - Teknikari bat Irurtzunen bulegoa (ipar-mendebaldeko zonaldea) astean behin eta Iruñea.
 - Komunikazio-lanak egiteko teknikari bat • Teknikari bat Tafallako Bulegoan (Erdialderako) astean behin eta Iruñerria.
 - Teknikari bat Lizarrako Bulegoko (Lizarralderako) teknikari 1 astean behin eta Nafarroako gainerako
 - Komunikazio-lanak egiteko teknikari bat.
 - LGBTI+ arloko profil juridiko bat Nafarroa oorako.
 - Koordinazio profil bat.
- lekuetan, non ez dagoen bulego deszentralizaturik.
- LGBTI+ arloko profil juridiko bat Nafarroa oorako.
 - Koordinazio profil bat.

Hori guztia dagoeneko gertatzen ari da, aldaketa horiek 2023ko urtarrilean gauzatu baitira, eta LGBTI+ Kattalingune Zerbitzu osoan ematen ari dira, eta, zehazkiago, landa-eremuan eta hiri deszentralizaturietan, murrizketa izan da, zerbitzuko profesionalak honako hauetara behartuz:

- Bulego deszentralizaturietan arreta murriztea. Arreta presentziala askoz ere maiztasun txikiagoarekin ematea (astean behin edo hamabostean behin), profesional berak lurraldeko beste bulego batzuei (eta dagozkien eremuei) erantzuteko aukera izan dezan.
- Bulegoan (Tutera, Lizarra, Tafalla edo Irurtzun) modu presentzialean ez ezik, eremu guztietan modu ez-presentzialean (ibiltarian) inbertitzen den denbora murriztea, profesional berak baitu bulego bat ez ezik dagokion eremu osoa eta gainerako lurraldea artatu beharra.

Berriz ere, Nafarroako biztanle guztientzako Arreta Zerbitzu Publikoa Iruñean

zentralizatzea suposatuz, bertan arreta presentzialaren ordutegia ere txikiagoa izango delarik.

Kolektiboek uste dugu azken aldaketa hori zentzugabekeria hutsa dela; izan ere, Kattalingune eta LGBTIQ+ Zuzendariordetza egonkortu eta proiektatu beharrean, hala nola hauen arteko sinergiak bilatu beharrean, hau ahuldu egiten du, inprobisatua eta planifikatu gabeako azken orduko mugimendua izatearen sentrazioa emanez. Ikusezin bihurtu den eta izaten jarraitzen duen errealitate honetan, LGBTIQ+ politikek, egiturek eta arreta-zerbitzuek urteak behar dituzte eraginkorrak izateko, eta, beraz, atzerapauso larria iruditzen zaigu baliabideen ekintza-gaitasuna murriztea.

Horrela, bada, Kattalingune ezinbesteko tresnatzat jotzen dugu LGBTIQ+ pertsoneri eta LGBTIQ+ errealitateari arreta emateko, komunitate horrentzako arreta-eredu zuzen, hurbil eta deszentralizatu batetik.

Horregatik guztiagatik, ebazpen-proposamen hau aurkezten dugu:

1.- Basaburuko Udalak, Nafarroako Gobernuari eskatzen dio LGTBIQ+ pertsoneri arreta integrala emateko zerbitzua, Kattalingune, ematen jarrai dezala, 2022ko abendura arte zeuden kalitate-parametroak eta ordura arteko 7 langileak mantenduz edo hobetuz, horretarako behar diren giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak emanez, eta Nafarroako Parlamentuak 2023rako onartutako 248000 euroko partida osorik erabiliz.

2.-Basaburuko Udalak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio zerbitzuko profesionalak entzuteko eta LGBTIQ+ kolektiboen ekarpenak jasotzeko, hari buruzko erabaki garrantzitsuak hartu aurretik.

3.- Mozio hau Nafarroako Gobernuari, INAIri eta LGBTIQ+ kolektiboek jakinaraztea, azken kasu horretan aniztasuneandiverses@gmail.com helbidean.

Bildutakoek aho batez onartzen dute irakurritako mozioa.

Gai zerrendatik kanpo badaude beste hiru gai bildutakoek aho batez onartzen dituztenak gai zerrendan sartzea aztertu eta erabakiak hartzeko:

Basaburuko ostalariei zuzendutako dirulaguntza deialdia, 2022an izan duten hornidura gastuen igoera arintzeko:

Alkateak irakurtzen du ogasun batzordeak prestatutako deialdiaren zirriborroa, bertan arautzen da Basaburuko ostalariek eskatu ahal duten laguntza 2022an izan dituzten hornidura gastuan zenbatekoaren %10ekoa izango dela.

Horretarako urteko gastua zenbatekoa izan duten zehaztu beharko dute fakturak aurkeztuz.

Bi baldintza bete beharko dituzte laguntza eskuratu ahal izateko, lehengoa 2022. Urtea JEZ altan egotea eta iharduera martxan baita 2023. Urtea ere, eta bestetik udalarekin zorrik ez izatea.

Dirulaguntza aurkezteko epea 20 eguneko izanen da deialdia argitaratzen denetik, bai udaleko tabloian bai web orrian.

Bildutakoek hortaz ondoren zehazten den erabakia hartzen dute aho batez:

- **Onartzea Basaburuko ostalarientzat bideratutako dirulaguntza lerroa 2022ko hornira gastuei aurre egiteko.**
- **Dirulaguntza eskatzeko epea 20 egunekoa izango dela finkatu, argitaratzen denetik.**

Auto elektrikoen zirkulazio zergan hobariak arautzeko ordenantza.

Alkateak azaltzen du ogasun batzordean gelditu bezala auto elektrikoek zirkulazio zergan hobariak izateko ordenantzaren zirriborroa prestatu da, bizilagun batzuk egindako eskaerak ikusita.

Hobaria %25ekoa izango da ECO ibilgailuetan

%50 0 emisioetako ibilgailuen kasuan. Beti ere gehienez 12 zaldi fiskal dituzten ibilgailuek izango dituzte hobariak.

Hobariak eskuratu ahal izateko, eskaera aurkeztu beharko da autoaren dokumentazioaren batera. Ordenantza hau indarrean egongo da 2024ko zirkulazio zergaren kobraketarekin, ez ordenantzaren tramitazio bukatu eta argitaratzen denean.

Hortaz bildutakoek hasierako onespina ematea onartzen dute aho batez Auto elektrikoen zirkulazio zergan hobariak arautzeko ordenantzari, eta 1990/6 Tokiko Foru Legearen 325. artikulua jarraituz hasiera onespenerako erabaki hau Nafarroako aldizkari Ofizialean argitaratua izan dadin agintzen dute hilabeteko epean jendeaurrean egoteko helburuz alegaziak aurkezteko aukera irekiz.

2023ko aurrekontua. Hasierako onespina

Alkateak adierazten du azkeneko bi ogasun batzordeetan landu dela aurrekontua eta apirilekoan txertatu direla azken aldaketak eta hasierako onespenerako prest legokeela.

Onartutako gastuean, inbertsio atalean eguzki plaken azpiegitura egiteko inbertsioa legoke alde batetik azpimarratzeko eta bestetik obra garrantzitsuena industriaguneko urbanizazio obra.

Gastuak osotara 1.416.066 eurokoa izango dira.

Sarreretan industriaguneko egiteko Industria ataleko laguntza izango litzateke alde batetik industriaguneko lursailen salerosketa bestetik eta Tokiko azpiegitura planaren barruan dagoen 2023. urterako libre determinazioko ekarpena.

Hots sarrerak osotara 1.458,851 eurokoak

Hortaz bildutakoek 6/1990 Tokiko Foru Legearen 271, artikulua jarraituz hasiera batez onartzen dute 2023. urteko aurrekontua eta erabaki hau Nafarroako aldizkari Ofizialean argitaratua izan dadin agintzen dute tramitazioarekin jarraituz 15 eguneko epean jendeaurrean egoteko alegazioak jartzeko aukera irekiz.

7- Batzordeen informazioa.

Kirol Batzordea. Julen Beunzak ematen du informazioa:

Maiatzaren 6an Sega txapelketa burutuko da Etxalekun eta maiatzaren 27ab BTT bizikleta txapelketa.

Kontzejuen batzordea. Santos Etxegiak ematen du informazioa:

Kontzejuen bilera egin zen 2022ko zirkulazio zerga, ura eta abarren kontuak aurkezteko. Udalak ordainduko zituela ekarpen hauek erabaki zen eta ere kobratu kontzejuei administrari gastuen ekarpenak. Baita ere kobratuko zaie fibraren obra egiteagatik pendiente dauden kontuak.

8- Informazio orokorra.

Agenda 21eko inbertsioetako laguntza onartu dute, gimnasia egiteko ekipamenduak falta diren herrietan jartzeko. 20.000 euroko laguntza

9. Erregu-galderak

Ez dira egin.

Eta gai gehiago aztertzeko ez dagoenez arratsaldeko 20:40 direnean bilera amaitutzat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du.